

Zuhaitza (Lana taldeka eta analisisa talde guztiak bilduta)

Denbora: 45 minutu.

Gida

- Zuhaitzaren irudia eta adibideak aurkeztu; adierazi zuhaitzaren sustraiak genero jarrera eta balioekin identifikatuko direla, eta enborra balio eta jarrera horiek areagotu eta iraunarazteko ardura duten erakundeekin; azkenik, hostoak ,aurrekoetatik ateratzen diren jarduerekin. Prozesu horien arteko harremana azaldu. (*)
- Taldeak egin. Talde bakoitzak zuhaitzaren zati bati atxikitzeko txartelak egingo ditu, eta dagokien lekuan itsatsiko ditu.
- Zuhaitzak aurkeztu eta horren gaineko eztabaida talde guztien batzarrean egingo dute; eztabaidaren oinarri honako galdera hauek izango dira:
 - Zuhaitzaren zein zati eraldatu daiteke errazen eta nola egin daiteke hori?
 - Zein esparrutan izango lukete eragin handiagoa aldaketek eta zergatik?

(*) Hostoak >>> Gizarte jarduerak

“emakumeei gizonen baino gutxiago ordaintzen diete lan bera egiteagatik”, “politika arloan gehiengoa gizonak dira”, “etxeko zereginak ez dira ekarpen ekonomikotzat jotzen”.

Enborra >>> Gizarte erakundeak

“eskola”, “telebista”, “legeak”.

Sustraiak >>> Jarrerak eta balioak

“gizonak trebeagoak dira politika kontuetan emakumeak baino”, “gizonezkoak oldarkorragoak dira”, “emakumeen lana bigarren mailakoa da gizonenarekin erkatuz gero”, “emakume batek ama izan behar du bere burua osorik gauzatzeko”, “gizon batek ez du sekula amorerik eman behar”.

Jatorria: GTZ (1995): *Herramientas para construir equidad entre mujeres y hombres. Manual de capacitación*. Santafé de Bogotá: GTZ.